



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko azaroaren 23an

103 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Sarrigurengo udalez gaindiko planeamendu sektorialak ukituriko eremua urbanizatu eta eraikitzeko prozesua arautzen duena. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak onetsitako irizpena (2. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Errege Bardea natur parke deklaratzeko duen apirilaren 6ko 10/1999 Foru Legea aldatzekoa. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak onetsitako irizpena (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:

—Mozioa, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da unibertitate-tasetan igoera portzentuala aplikatzeko erabakia atzera bota dezan (7. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Sarrigurengo udalez gaindiko planeamendu sektorialak ukituriko eremua urbanizatu eta eraikitzeke prozesua arautzen duena

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak Sarrigurengo udalez gaindiko planeamendu sektorialak ukituriko eremua urbanizatu eta eraikitzeke prozesua arautzen duen Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da, Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proiektu hori, 2000ko irailaren 4ko 67 zenbakiko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz ez da zuzenketarik mantendu, ezta boto partikularrik egin ere.

Iruñean, 2000ko azaroaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

IRIZPENA

Foru Lege proiektua, Sarrigurengo udalez gaindiko planeamendu sektorialak ukituriko eremua besterentzeko prozesua arautzen duena

Foru Komunitateko herritarrek etxebizitza bat izateko ahalbideak sustatzeko lana Nafarroako erakunde publikoen helburu garrantzitsunetariko bat izan beharko litzateke. Alde horretatik, Sarrigurengo eko-hiriaren proiektua, hurrengo urteetan etxebizitzak egiteko gizartearen eskaerari erantzuna emateko asmoz, erakundeek hartutako konpromisoa gauzatzeko aurrerapauso garrantzitsua da.

Proiektu horren helburu nagusia etxebizitza planetan ezarritako araubideetako baten pean babestutako etxebizitzaren eskaintza zabala egitea da, Iruñerri osotik datorren eskaerari erantzuteko.

Izan ere, aurreikusiriko etxebizitza kopurua handia da eta, horrela, Iruñerri osotik datorren presako eskaerari erantzuna emateko modua izanen da. Gainera, ingurunearen eta biztanleriaren artean bestelako harremanbideak bultzatu nahi dira eta ingurugiro kalitatearen estandarrak igo.

Sarrigurengo eko-hiria bizigune berri bat izanen da, berariazko ezaugarriak izanen dituena. Iruñerriko ardatz gisa eta eskualdea antolatzeke eredu gisa garrantzi handia hartuko du. Izan ere, Iruñerria bizigune mugatuaren inguruan egituratu nahi da, ez eredu sakabanatu eta ordenarik gabeko inguruan. Gainera, lan egiteko eta bizitzeko eremuak eskualdean diren horrelako hiri-sareetan egoki integratzeko asmoa dago, sinergiak bultzatzearen.

Halaber, epe laburrean lur eremu urbanizagarri zabalak lortu nahi dira, zoruaren eta etxebizitzaren prezioaren igoera justifikaezinak saihesteko eta ageriko den prozesu horri garaiz aurre egiteko. Bestalde, eta antolamenduan gune bat osatuko duen multzoa taxutzeko, "jarduera ekonomiko- en edo aukera eremua" eremu bat ezarriko da, hartan merkataritzako jarduerak eta zerbitzuen arlokoak ezarri ahal izateko.

Helburuak horiek direla, foru lege honek Sarrigurengo eko-hiriaren proiektua gauzatzeko behar den lurzoru publikoa besterentzeko prozesua arautzen du. Horretarako, Nafarroako Gobernuak indarra duten legeetan ezarrita dauden aginduzko hirigintza baliabideak tramitatu ditu. Etxebizitzaren arloan, lurzoruaren inguruko legeriaren eta merkaturaren aldakortasunagatik komenigarria da indarrean dagoen legerian aurreikusitako besterentze aukera eta formula guztiak kontuan hartzea, lortu nahi den helburu sozial hori erdiesten bereziki

laguntzeko. Aurreikusitako helburu soziala kontuan harturik, egoki ikusi da lurzorua besterentzeari ekiteko enkantearen bidea bazter uztea. Hortaz, zorua besterendu edo eskualdatzeko bide hauexek ezarri dira: lehiaketa publikoa; Foru Komunitatearen menpeko sozietate instrumentalei edo irabazteko asmorik ez duten laguntzako entitateei edo gizarte entitateei zuzenean besterendu edo eskualdatzea; edo lagapena, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 274. artikulua aipatu bezala. Gainera, lurzatiak eta haiei dagozkien eskubideak foru lege honen helburu sozialak betetzeko egoki diren ondasun eta eskubideekin trukatzeko arauak ere ematen dira.

Foru lege honen helburuen ildotik, lurzorua besterentzeko prozesuetan, hautatutako formularen edozein delarik ere, eskatu eta baloratuko dira lizitatzaileren proposamenetan hitz ematen diren baliabideen maila profesional eta teknikoari buruzko baldintza batzuk, zertarako eta ondokoak bermatzeko: proposamenaren bideragarritasun teknikoa, ingurumenaren eta arkitekturaren aldetik behar den kalitatea, etxebizitza-sustapenaren bideragarritasun ekonomikoa eta etxebizitzaren hartzaileen ezaugarri sozioekonomikoak. Halaber, Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio behar diren neurriak ezar ditzan proiektua egoki kudeatzen dela eta ezartzen diren baldintzak betetzen direla bermatzeko.

1. artikulua. Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio Sarrigurengo eremuko udalez gaindiko planeamendu sektorialaren barrenean diren lurzatiak eta haiei atxikiriko eskubideak besterendu edo eskualdatzea erabaki dezan, haien kalkulatu den balio ekonomikoa gorabehera, prozesuak bereizita egin beharko dira lurzatiek edo eremuak duten hirigintza xedearan arabera, eta bigarren eta hirugarren artikuluetan ezarritako prozedurak aplikatuko dira lurzorua etxebizitzetarako den edo jarduera ekonomikoetarako den kontuan harturik.

Lurzati eraikigarriak eta haiei atxikiriko eskubideak publizitate eta konkurrentzia publikoa betetzeko besterendu beharko dira eta, halaber, horien gardentasuna erabatekoa izan behar dela bermatuko da. Besterentze edo lagatze prozesu guztien baldintza pleguetan hirigintza planeamenduak ezarritako interes orokorreko helburuak beteko direla ziurtatzeko bermeak ezarriko dira, bai eta espekulazioa, gainprezioa edo eraikinen gaineko edozein motatako iruzurrik gerta ez dadin.

2. artikulua. Aurreko artikuluan aipatu ondaskan, etxebizitzetarako eremuan sartutakoak, bes-

terendu edo eskualdatzeko bide hauek erabili ahalko dira:

a) Lehiaketa publikoa, lehiaketa-enkantea edo enkantea.

b) Foru Komunitatearen titulartasun publikoko sozietate instrumentalei zuzenean besterendu edo eskualdatzea edo, bestela, irabazteko asmorik ez duten laguntzako entitate, gizarte entitate edo sindikatu eskatzaileei, nolabaiteko babes publikoa izan behar duten etxebizitzaren eraikuntza sustatu eta sustapenaren bideragarritasuna bermatzeko esperientzia eta bitartekoak dituztela frogatzen badute. Kasu horretan, Nafarroako Gobernuak behar diren neurriak hartuko ditu babes publikoaren araubideko etxebizitzaren hartzaileek etxebizitza horiek eskuratzeko eskatzen diren baldintza guztiak bete ditzaten.

c) Lagapenak, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 274. artikulua agindu bezala, planeamenduan ezarritakoaren arabera bidezkoak baldin badira.

d) Trukea: lurzatiak eta haiei atxikita dauden eskubideen ordez, foru lege honen helburu sozialak betetzeko egoki diren ondasun eta eskubideak eskainiz.

LETRA BERRIA) Nafarroako Gobernuak ezarriko ditu besterentzeko baldintzak, besterentzearen helburuak eta etxebizitza edo ekipamendua eskuratzeko eskatutako baldintzak betetzen direla bermatuko dituztenak. Baldintza horien artean itzulketarako aukera eta lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideez baliatzea ezarri ahalko dira.

LETRA BERRIA) Etxebizitzetarako ondaskan, etxebizitza librearen araubidean eraikiak izateko, enkante publikoaren bidez besterendu edo eskualdatuko dira, Nafarroako Ondareari buruzko irailaren 27ko 17/1985 Foru Legeak ezarritako baldintzetan.

2. bis artikulua. Lehendabiziko artikulua aipatzen dituen ondasunak, jarduera ekonomikoaren eremuan sartutakoak, besterendu edo eskualdatzeko enkante publikoaren prozedura erabili beharko da nahitaez.

3. artikulua. 1. Foru Komunitateko Administrazioaren departamentu eskudunak ahalmena izan behar du urbanizatzeko kudeaketa jarduerak eta aurreikusitako planeamendua burutzeko behar diren bestelakoak titulartasun publikoko sozietate instrumentalen gain uzteko.

2. (KENDUTA)

4. artikulua. Etxebizitzetarako eremuko lurzoru basterentzeko prozeduretan Foru Komunitateko Administrazioaren departamentu eskudunak edo, bestela, kasuan kasuko titulartasun publikoko sozietate instrumentalak honako alderdi hauei buruzko baldintza batzuk bete daitezela eskatu edo baloratuko du:

- 1.- Urbanizatu eta eraikitzeko epeak.
- 2.- Etxebizitzak eta lokalak saldu edo errentan emateko prezioak eta baldintzak.
- 3.- Etxebizitzen hartzaileen ezaugarri sozioekonomikoak, horien barrenean direla familia egoera, etxebizitzaren beharra norainokoa den eta dirusarrerak.
- 4.- Arkitektura eta ingurugiroaren aldetiko kalitatea.
- 5.- Egin gogo den sustapenaren bideregarritasun ekonomikoa.
- 6.- Proposamenaren bideragarritasun tekniko bermatzeko, lizitatzailleek proposamenean hitz emandako baliabideen ezaugarri profesional eta teknikoak.

4. bis artikulua. Jarduera ekonomikoen edo aukeren eremuko lurzoru basterentzeko prozeduretan, Foru Komunitateko Administrazioaren departamentu eskudunak edo, bestela, kasuan kasuko titulartasun publikoko sozietate instrumentalak honako alderdi hauei buruzko baldintza batzuk zehaztuko ditu eta horiek bete daitezela eskatuko du:

- a) Jarduera ekonomikoen edo aukeren eremua eta etxebizitzetarako eremua bateratzeko eredia, bai eta biak ingurunearekin bateratzekoa ere.
- b) Proposamenaren bideragarritasun tekniko bermatzeko, lizitatzailleek proposamenean hitz emandako baliabideen egokitasun profesional eta teknikoak".
- c) Arkitektura eta ingurugiroaren aldetiko kalitatea.
- d) Egin gogo den sustapenaren bideregarritasun ekonomikoa.
- e) Ezarri asmo diren jarduerak lurraldean, gizartean eta ekonomian, lan arloan eta ingurumenean izanen duten eragina.

Xedapen gehigarria

Sarrigurengo eremuko planeamendu sektoriala ekinbide publikoko jarduketa denez gero, Foru Komunitateko Administrazioan horretarako eskumena duen departamentuko kontseilariak ahalmena du hirigintza kudeaketarako behar diren agiriak tramitatu eta onesteko, urbanizazio proiektua barne.

Xedapen gehigarri berria

Sarrigurengo ondasun publikoak basterentzearen ondorioz lorturiko baliabide ekonomikoak erabiliko dira lurzoru gehiago erosteko eta horrela lurzoru ondare publikoaren erreserba handitzera bideraturiko etxebizitza arloko ekimen publikoko jarduerak ahalbidetzeko.

Lurzoruari buruzko Legean eta hurrengo Etxebizitza Planean kontzeptu berri bat sartuko da foru lurzoru publikoaren ondarea birdefinitzeko; hain zuzen ere, hark "Lurzoru Publikoaren Foru Bankua" izena hartuko du.

Xedapen gehigarri berria

Nafarroako Gobernuak, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren bitartez, kasuan kasuko parlamentu-batzordeari jakinaraziko dio, gutxienez ere sei hilabetean behin, Sarrigurengo lurzoru publikoaren basterentze prozesuaren bilakaera zein den, onesten denetik, eta, bereziki, zein neurritaraino egin den.

Xedapen iragankorra

Nafarroako Gobernuak ez du baimenik emanen Sarrigurengo Jarduera Ekonomikoen edo Aukeraren Eremuan merkataritza establezimendu handirik instalatzeko, horrelako establezimenduak gure Komunitatean ezartzea Merkataritzari buruzko Foru Lege Orokor baten bidez arautzen ez den bitartean.

Azken xedapenak

Lehena. Nafarroako Gobernuak Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariari ahalmena ematen zaio foru lege honetan aurreikusitakoa garatu eta betearazteko behar diren gintza eta xedapenak eman ditzan.

Bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Errege Bardea natur parke deklaratzeko duen apirilaren 6ko 10/1999 Foru Legea aldatzekoa

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak Nafarroako Errege Bardea Natur Parke deklaratzeko duen apirilaren 6ko 10/1999 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da, Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proposamen hori, 2000ko ekainaren 6ko 47 zenbakiko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz ez da zuzenketarik mantendu, ezta boto partikularrik egin ere.

Iruñean, 2000ko azaroaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

IRIZPENA

Foru Lege proposamena, Nafarroako Errege Bardea natur parke deklaratzeko duen apirilaren 6ko 10/1999 Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Apirilaren 6ko 10/1999 Foru Legeak natur parke deklaratu zuen Nafarroako Errege Bardeak hartzen duen lurraldea, baina babes figura horretatik kanpo geratu zen, besteak beste, tiro poligonoren erabilera bereziko eremua, 2.244 hektarea hartzen dituen.

Lege hartako zioen azalpenean esaten da komenigarria dela tiro poligonorako gordetako eremuan burutzen ari den erabilera eta jarduera berraztertzea.

Aipatu erabilera arautzen duten harreman juridiko indardunak laster bukatuko direnez, Errege Bardearen ingurumena guztiz zaintzeko eta apirilaren 6ko 10/1999 Foru Legearen xedea, ingurume-

na babestea alegia, lortzeko, aipatu Foru Legea aldatu beharra dago.

Artikulua

1. Nafarroako Errege Bardea Natur Parke deklaratzeko duen apirilaren 6ko 10/1999 Foru Legeko 1. artikulua beste modu batera idatziko da. Hona:

Natur parke deklaratzeko da Nafarroako Errege Bardeak hartzen duen lurralde osoa. Babes figura horretatik kanpo geratzen dira honako erabilera bereziko eremuok: Hondo de Espartosa (272 ha.), Bandera (43 ha.) eta Cinco Villas (13 ha.). Natur parkearen mugak, 1998ko edizioako Nafarroako 1:5.000 mapa topografikoaren arabera, honakoak dira: (hemendik aurrera, legean datorren legez).

Azken xedapenak

Lehena. Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio, foru lege hau aplikatu eta garatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

Bigarrena. Foru lege honek 2001eko ekainaren 10ean hartuko du indarra.

BERRIA. Foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, Nafarroako Errege Bardearen Komunitateak Natur Baliabideen Antolamenduari buruzko Planaren aldaketa prestatuko du, Nafarroako Gobernuak tramitatu eta onetsi dezan. Aldaketa horretan, tiro poligonoak hartzen duen lurraldearen zehaztapenak eta araubidea ezarriko dira.

Zehaztapenak eta araubide juridikoak ondorioak izanen dituzte Natur Baliabideen Antolamenduari buruzko Planak zehaztutako erabilerekin bateraezinak diren eraikin eta instalazio militarrek erabat eraitsirik daudenean eta tiro eremuak hartzen duen lurraldean nola inguruetan dauden leherkariak indargabetzen direnean.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da unibertsitate-tasetan igoera portzentuala aplikatzeko erabakia atzera bota dezan

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da unibertsitate-tasetan igoera portzentuala aplikatzeko erabakia atzera bota dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko azaroaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onetsi eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea. Mozio hori jabelduraren ondorioa da eta, Erregelamenduko 183. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du hurrengo osoko bilkuran eztabaida eta bozka dadin.

Zioen azalpena

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak jabeldura bat egin zion Nafarroako Gobernuari, NUPeko tasak % 5 igotzeko hartutako erabakia azal zezan, igoera horixe izaki Unibertsitateen Kontseiluak ikasturte honetarako baimendutako handiena. Erabaki horren ondorioz, Nafarroako Unibertsitate Publikoa Espainiako Estatuko garestiena da.

Joan den azaroaren 9an, Osoko Bilkuran, Laguna jauna agertu zen jabeldura horri erantzuteko.

Bost izan ziren Laguna jaunak unibertsitate-tasen igoera justifikatzeko Osoko Bilkuran azaldu zituen zio edo arrazoiak:

- Joan den ikasturtean Nafarroako unibertsitate-tasak Unibertsitateen Kontseiluak garai hartan baimendutako kopururik txikienean igo zirela.

- NUP Estatuko unibertsitate publikorik garestiena bada ere, hori orekatzeko Nafarroako Gobernuak beken arloan egiten duen politika dagoela, eta campusean hobekuntza handiak egin direla.

- NUPeko ikasleek betetzen duten lekuaren kostu errearen % 17 baizik ez dutela ordaintzen, eta azken finean logikoa dela Unibertsitateko zerbitzuak zuzenean erabiltzen dituztenek kostuaren zati on bat ordaindu behar izatea.

- Nafarroako Gobernua hezkuntzan biztanle bakoitzeko gehien gastatzen duen gobernu autonomikoa dela.

Gure ustez, zio edo arrazoi horiek ez dira aski Gobernuak unibertsitate-tasen ehuneko igoerarik handiena egiteko erabakia har zezan justifikatzeko. Are gehiago, arrazoi horiek erantzun erraza dute, azaldu genuen bezala:

- Aurreko urtean Unibertsitateen Kontseiluak baimendutako igoerarik txikiena erabakitzeak ez du justifikatzen aurtengoa baimendutako igoerarik handiena izatea, kontuan harturik aurreko ikasturteko igoeraren ondoren NUP Espainiako Estatuko unibertsitaterik garestiena zela.

- Beken politika beste autonomi erkidego batzuetakoa baino zabalagoa izanda ere, 2.328 ikasleengan baizik ez du eragina, hau da, NUPeko ikasle guztien % 20rengan, eta kualitatiboki ere ba dago zer hobetu (esate baterako, bekei eusteko eskatzen diren emaitza akademikoei dagokienez).

- Campusean hobekuntzak egin direla ukatu gabe, NUP ez da Espainiako Estatuko unibertsitate publikorik onena, ezta hurrik eman ere; beraz,

ez du inolako justifikaziorik guztietan garestiena izateak.

Alderantziz. Datu asko daude esateko NUPek akats asko dituela: euskarazko eskaintza urria NUPeko 2.000 ikasle euskaldunentzat, eskainitako ikasgai batzuk deuseztatzea, bereziki ingeniari-tza industrialaren adarrean; NUPek kazetaritza bezalako titulazio giltzarriak ez izatea eta abar.

- Nafarroako ikasleek beren postuaren % 0 ordaintzen dute batxilergoan eta heziketa zikloetan, derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntza publikoan. Nafarroako herritarrek % 0 ordaintzen dute osasun publikoan ematen zaien laguntzarengatik. Bi kasu horietan, zerbitzu horien gastu osoak Nafarroako herritarrek ordaintzen dituzte, zerbitzu publikotzat jotzen direlako.

Gure ustez, NUP ere zerbitzu publiko gisa hartu behar da, eta lagungarri gertatzen da gizartearen garapenerako; hori dela eta, argi eta garbi dago gizarte osoak ordaindu beharko lukeela. Horrek ez du esan nahi NUPeko ikasleek dirurik ordaindu behar ez izatea, baina esatea ikasleak direla NUPeko zerbitzuak zuzenean erabiltzen dituztenak matrikularen igoera justifikatzeko guztiz bidegabea da. NUP Nafarroako gizartearen, eta ez soilik ikasle nafarren, zerbitzuan dagoen tresna bat da.

Horrenbestez, Nafarroa baldin bada Espainiako Estatuan hezkuntzan biztanleko batez beste

diru gehien inbertitzen duena, NUPek aurrekoak bezalako hutsak baldin baditu eta NUPeko ikasle nafarrak Estatu osoan gehien ordaintzen dutenak badira, ari dago zerbait oker ari dela egiten baliabide publikoak kudeatzeko orduan.

Hori guztia dela eta, gure Parlamentuko Taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak ondokoa erabaki du:

1. Nafarroako Gobernuari eskatzea atzera bota dezan ikasturte honetarako unibertsitate tasei % 5eko igoera aplikatzeko erabakia, eta Gobernuari eskatzen dio % 3ko igoera aplika dezan, Unibertsitateen Kontseiluak erabakitako gutxieneko igoera baita.

2. Nafarroako Gobernuari eskatzea behar diren tresnak jar ditzan tasen prezioan zuzenketa hori aplikatzearen ondoriozko diru kopuruak itzultzeko.

3. Nafarroako Gobernuari eskatzea hurrengo ikasturteetan eta aparteko egoera benetakoak gertatzen ez diren bitartean, Unibertsitateen Kontseiluak ezartzen duen gutxieneko igoera aplikatzea erabaki dezan.

Iruñean, 2000ko azaroaren 13an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat..... 6.200 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 145 ».</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 180 ».</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p>
---	---